

10. OTORDUAK

Gosaltzeko, pues baldin bazen baba, gero, urdaia, xingarra. Seguro. Orain, baldin bazen, por ejemplo, talo eta esnea, pues ja gero ez zen bertze jangaririk, talo eta esnea. Holaxe izaten zen.

Ogirik ez?

Ogia gutxi, zenbait aldiz igual, errazionamendua baitzegoen. Gero ja, hasi zen denboran ogia, pues bai, baina edozein xingarrarekin edo esnearekin edateko, nahiago genuen taloa ogia baino. Bai, eta gero...

Zuek egina beti, naski?

Eta gero egiten ziren marrakuku erraten ziotena. Taloa hilik daukazu eta gero partitu hola, eta gero hola ireki eta sartu gazta hor. Eta, gero, paratu eltzearen gainean. Paratzen zenuen karga pixka bat; hasten zelarik gazura ateratzen hola, meka! Joder! Ta agudo garbitzen ziren! Agudo garbitzen ziren!

Era guztietako bordariak hor ateratzen dira herrietan gazta egin eta gero, xingarrarekin edo, txistorrarekin edo, baina talo harek ez baitaude eginik, ordea, barnera! Gaietik bai, baina ez baitute denborarik barnetik egiteko! Guk egiten genituen paratu eta gero, "maatxarroa" erraten zitzaion holako... holako borobil batzuk. Eta hartan tente paratu eta han txigortzen ziren orduan. Eta barnera egina egoten baitzen. Baina hura egin dugu. Anitz aldiz erraten digu:

- Oye, ¿no vas a coger un poco talo ahí?
- Sí, mejor que eso ya hemos comido más de una vez.

Klaro, ez baita eginik egoten hura. Hor...

Fite egin behar baitute eta jendeak eskatzen baitie, ez?

Klaro, nola ez dugun ezagutzen bertzea, guretako arrunt onak. Bai, egia da, bai.

Izan genituen urteak... urteak baba gosaltzeko, purea babarena eguerdirako.

Baba zopa izanen da.

Ez, ez, purea eta arratserako patata. Eta kontent babak egiten zuela. Babak ekartzen zituen estraperloan. Bai.

Erdararekin gauza... gauzak galdetu eta, komunera joateko ere igual beldurka samar eginda lehenbizian, gero nolabait ere galdetzen genuen eta... ez, horretarako ona izaten zen gainera eta ez, ez, galdetzeko... galdetzeko problemak izaten genituen, seguro! Ez genekien eta! Problema... problemak izaten genituen.

Fija zaitetz, nik hamar urtetan ez nekien batere erdaraz. Baina horiek, mantzurriano horiek denak baino azkarragoak gara gu, e? Hamar urtetan nik ikasi nuen erdaraz, ederki! Eta erraten dizut, defenditzen naiz izkina guztietan!